

¡BIYOZTASUNA!



(NEKE AITA MAITEARI DONKITUA)

*Charra gorri*¹ bat tente
arturik buruan,
neska bat iturrira
ur billa zijuan;
oiñ utsik, ain kontentu
gāsua kantari,
non trabatu ta bertan
anthen zan erori;
kankarrua zitzayon
oso chirchillatu,
zikindu zan gāsua
ta zuben miñ artu;
¡lenago ain pozkidaz
zijoana farrez,
naigabez beterikan
asi zan negarrez!
Charra gorri puskari
geldi zan begira,
zetoziyola malko
aundiyak begira,
eta esaten zuben
—¡Jesús! au da lana

(1) Chofre jarrua.

utsik ez naiz ni joango
 nere amagana,
 au bakarrik genuben
 gure sukaldian,
 ¿zer egingo ote dit
 echera joatian?—

.

Galai batek entzunik
 aren negar otsa,
 ateratzen du bere
 patrikatik boltsa;
 eta diyo:—¿Ez bada
 negarrikan egiñ?
 zuaz amarengana
 boltsacho onekiñ
 eta esan, berriya
 erosi dezala,
 eta gañerakua
 zeontzako dala.—

.

.

Jaunak ordañak goitik
 dakizki bigaltzen
 galai on au bezela
 danari portatzen.

JOSÉ ARTOLA.

